


SARETIK ZURERA



ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

EGILEAK: Uxue Redondo Fernandez, Israel López Ruiz,
Yamina Chebicheb Benabbou eta Luz Marina Moreira González.



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

Ebazten dugun arazoa:

Elkarteen eta dendetako produktu soberakinen arteko muga konpontzen dugu, baita etxeetan soberan dauden produktuena ere.

Zerk egiten gaitu ezberdin?

Gure lan egiteko modua azkarra eta eraginkorra da. Whatsapp business eta antzeko plataformen bidez, lanean ari garen marka ezberdinekin harremanetan jartzen gara, soberakinak bildu ahal izateko. Jarraian, eskuragarri ditugun produktuak eskatzen dituzten beste erakunde batzuekin harremanetan jartzen gara. Azkenik, landa-lana sortzen dugu soberan dauden produktu horiek behar duten erakundeei emateko.

Nor da bezeroa?

Gure bezeroa modu publikoan udala da eta pribatuan, hainbat erakunde. Haiekin batera lan egingo dugu kolektibo behartsuenen zenbait behar betetzeko. Eta bide batez, instituzio publikoak lagundu eta gizarteko kontsumismoa eta soberakinak gutxituko ditugu.

Zergatik ordainduko du gure zerbitzua?

Konponbide azkarra eta eraginkorra eskaintzen diogu elkarteen baliabide faltari eta erantzun eraginkorra daukagu gizartearen kontsumismo neurrigabearentzako ere. Zerbitzu berria eta ezinbestekoa da gizartearentzat eta jasangarritasunarentzat. Gainera, Udalari laguntza ematen diogu Agenda 2030eko eskaerak betetzen lagunduz.

Espania mailan, pertsona bakoitzeko 20-30kg arropa botatzen dira. Horietatik %10-12 artean birziklatu edo berrerabiltzen dira. Arropa 1kg bakoitzeko, 6.1kg CO2 sahiesten dira. Gainera, arropa hori klasifikatzeko etab, gizarteratzea eta laneratzea sustatzen du.

Bestetik, Arabako Elikagaien Bankuak 1.535 tona elikagai banatu zituen 2024an. Gainera, adierazi dute "3.700 pertsonak baino gehiagok" Araban



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

Elikagaien Bankuari esker jan ohi duela, hainbat banaketa-elkarteren bidez. Era berean, "premiazko banaketa-lokal" bat dago Gasteizen (Brasil kalea), urtero 1.500 pertsona artatzen dituen oinarritzko beharrianetarako. Egoera hau dela eta, merkatuan zenbat janari botatzen den aztertu dugu. Horregatik janari hori egoera onean dagoelarik, erakundeen artean banatzea da gure lana, haiei laguntzeko eta enpresei birziklatzeko baliabidea eman ahal izateko.